

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Garbiñe Aperribai Larrañaga

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Garbiñe Aperribai Arrasateko Erdiko kalean jaio zen 1932an. Aita aretxabaletatarra eta ama arrasatearra; biak Donostian lanean zebiltzala ezagutu eta ezkondu ziren. Bost anai-arreba dira eta Garbiñe bigarrena da. Gerra sasoian Arrasatetik pasatzen ziren hegazkinak gogoan ditu eta baita bonbardeaketetan babeslekuan amarekin gordetzen zirela ere. Umetako eta gaztetako kontuez aritu da: etxeko giroa, jakiak, eskola, erromeriak...

Zintak

ARR-190

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2021-12-01
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Arrasateko Erdikokaleak izandako izen ezberdinak

- **Erref:** ARR-190/002
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:00:11. **Bukatu:** 00:01:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Arrasateko Erdikokalian bizi zan. Jaio zenean kalean maisu baten izena zuen eta gerra ostean General Franco kalea deitzera pasatu zen. Bera jaio zen etxea bota egin zuten.

2. Gurasoak Donostian ezagutu ziren

- **Erref:** ARR-190/003
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:01:04. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama arrasatearra eta aita aretxabaltarra. Aita igeltseroa zen eta ama neskame bezela egon zen lanean Donostian sei urtez. Gurasoak Donostian nola ezagutu ziren kontatzen du.

3. Arrasate gerra aurretik; Merzedarixetara eskolara

- **Erref:** ARR-190/004
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Politika » Gerra aurrea

Laburpena:

Gerra aurretik Arrasate nolakoa zen gutxi gogoratzen du. Amak plazara bidaltzen zituzten jolastera. "Merzedarixetara" joaten zan eskolara gerra aurretik eta San Frantzizkoko elizan izaten zen.

4. Bonbardeaketan babeslekuak Arrasaten

- **Erref:** ARR-190/006
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerrako oroitzapen gutxi ditu: hegazkin beltzak zerutik pasatzen zirenekoa eta bonbardeaketetan Maixorrena etxeko eta frontoi inguruko babeslekuetan ezkutatu zirenekoa. Babeslekutik ateratzean geratu zen usaiaz ondo gogoratzen da.

5. Aitonaren etxea suntsituta bonbarengatik

- **Erref:** ARR-190/007
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Aitonaren etxean bonba bat jausi zen. Gerran beldurrez bizi ziren. Gerra Arrasaten pasa zuten baina egun batzuk baserrian pasa zituela gogoratzen du

6. Purificacion deitzen zioten gerraostean eskolan

- **Erref:** ARR-190/008
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gerraostean gurasoak lanera bueltatu ziren eta bera eskolara, baina dena gazteleraz. Garbiñeri Purificación deitzen zioten baina berak ez zuen kasorik egiten. Eskolako mojek arratsaldetan ospitalean lan egiten zuten.

7. Gerraosteko elikagaiak

- **Erref:** ARR-190/009
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean ez zuten goserik pasa baina errazionamendu txartela erabiltzen zuten. Babarrunak eta morokilak jaten zituzten egunero. Gabonetan, Zerrajerak elikagai asko ematen zituen herrian. Sagarrak ez ziren inoiz falta etxean. Sardinak, antxoak eta txitxarroa ere egoten ziren.

8. Telefonikan eta dendan lanean

- **Erref:** ARR-190/010
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Hamalau urterekin Telefonican lanean hasi zen, telegramak entregatzen. Telefono deietan lan egiteko bi ahizpa eskatzen zituzten eta berak ez zuen. Aitak gero denda bat zabaldu zuen eta bertan egon zen lanean, hogeitabost urterekin ezkondu zen arte.

9. Umetako jolasak

- **Erref:** ARR-190/011
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan, sokasaltoan, gordetzen, soka, "hanka-koxkoka"... ibiltzen zen jolasean lagunekin. Ez zegoen dirurik.

10. Musika banda eta txistulariak Arrasaten

- **Erref:** ARR-190/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika-banda eta txistulariak egoten ziren garai batean Arrasaten. Aretxabaletako Otsoa danbolin-jotzailea aipatzen du. Herriko plazaren erdian musika-kioskoa zegoen. San Juanetan,

11. Erromeriak inguruko herrietan: Aretxabaleta, Bergara...

- **Erref:** ARR-190/013
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:19:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Aretxabaletako erromerietara oinez joaten zen eta Bergarakoetara, tren berezian. Trenen ordutegiak aipatzen ditu. Musika piezak nola jotzen zituzten azaltzen du.

12. Emakumeak industrian lanean

- **Erref:** ARR-190/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Ezagutzen ditu emakume batzuk industrian lan egindakoak baina bere lagunaren artean ez. Bulegoan emakumeak egoten ziren eta fabrika batzuetan ere bai, gehienbat alargunak.

13. Trenbideko langileak, lehenengo erdaldunak Arrasaten

- **Erref:** ARR-190/016
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

Gerra aurretik heldu ziren lehenengo erdaldunak Arrasatera, trenbidea eraikitzeko. Tomatea gordinik jaten ikusten zuten lehenengo aldia izan zen. Etorritako langileen seme-alabek euskara ikasi zuten.

14. Senarraren aita fusilatua eta gerratik bueltan etxerik ez

- **Erref:** ARR-190/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Garbiñek, senarrari buruz hitz egiten du: Gerra garaian bere aita fusilatu zuten, etxea hustu zieten eta izeba baten baserrian bizitzen egon ziren. Ikasketak egin zituen eta kooperatibista egin zen Union Cerrajeran.

15. Union Cerrajeraren garrantzia Arrasaten

- **Erref:** ARR-190/019
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:27:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Union Cerrajera zen Arrasateko garaiko lantegirik handiena eta garrantzitsuen. Cerrajerak asko lagundu zuen Arrasaten: prezio merkeagoak janari eta oinetakoetan, ikatza dohainik. Beste lantegi batzuk ere bazeuden: Elma, Artamendi-Berezibar, Altuna...

16. Arrasateko ospitalaren sorrera; mojak erizain

- **Erref:** ARR-190/020
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:27:39. **Bukatu:** 00:29:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Jose Maria Arizmendiarrak apaizak lagundu zuen Arrasateko ospitalea sortzen. Hasieran, Merced-eko mojak hartu zuten ospitaleko lanen ardura eta bertan bizi ziren. Urteetara, Altamirara lekualdatu ziren.

17. Garai batean, ama etxean eta aita lanean

- **Erref:** ARR-190/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:29:37. **Bukatu:** 00:31:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Garai batean, ama etxean egoten zen haurrak zaintzen. Orain ezberdina dela kontatzen du Garbiñek.

18. Santa Agedako ospitale-psikiatrikoa

- **Erref:** ARR-190/022
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:31:06. **Bukatu:** 00:32:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Garai batean, ia ez zegoen autorik Arrasaten. Bi pertsona gogoratzen ditu. Santa Agedako ospitale-psikiatrikora jende asko joaten zen eta bisita asko egoten zirenez, herrian kotxea zutenek taxista lanak egiten zituzten. Ospitaleran inguruetan dagoen txaletari buruz hitz egiten du.

19. Aretxabaletatik Soraluzera egunero oinez

- **Erref:** ARR-190/024
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:34:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Trena Arrasatera XX. mende hasieran heldu zen. Garbiñeren aitaren osaba bat, egunero joaten zen Aretxabaletatik Soraluzera lanera oinez.

20. Inguruko baserritarrak herrian saltzen

- **Erref:** ARR-190/026
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:34:27. **Bukatu:** 00:35:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Arrasatera, bertako edo inguruko herrietako (Aretxabaleta, Aramaio...) baserritarrak saltzen zituzten produktuak azokan. Trukea egoten zen. Sagarrak eta gaiztainak lapurtzen zituzten maiz.

21. Arrasateko tren geltokiaren itxiera

- **Erref:** ARR-190/028
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:35:48. **Bukatu:** 00:37:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Autopistak eraiki eta bideak hobetu zirenean, trenak indarra galdu zuen eta Arrasateko geltokia kendu zuten. "La Bergaresa" autobusa zuten eta ez zuen trenaren falta asko sumatu.

22. Bonbardeaketak Arrasaten

- **Erref:** ARR-190/031
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:39:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Arrasateko kaleetatik erregimenaren kontrakoak ziren emakumeak ateratzen zituzten, ilea moztuta eta errizino-olioa emanda. Behin emakumeak plazan deitu zituzten eta bonba bat bota zuten baina plaza ondoko etxe batean jausi zen. Zaragozan gertatutakoa kontatzen du.

23. Atzerriko soldaduak Arrasaten

- **Erref:** ARR-190/033
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:39:44. **Bukatu:** 00:41:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Soldadu italiarrak eta alemaniarrek zeuden Arrasaten gerra garaian. Italiarrek jarrera xume bat zuten hiritarren baina alemaniarrek harroputz batzuk zirela kontatzen du.

24. Soldadu italiarrei arropak garbitzen zizkieten emakumeek

- **Erref:** ARR-190/038
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:44:17. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

"Ferixaleku"-ko askan garbitzen zituzten arropak Garbiñek eta bere amak. Arrasaten zeuden beste aska batzuk ere aipatzen ditu. Emakumeak kontu-kontari ibiltzen ziren bertan. Soldadu italiarrak haien arropak garbitzera hurbiltzen ziren baina ez zekiten nola egin eta herriko emakumeek garbitzen zizkieten. Txinbo, "Lagarto" xaboia eta lixiba erabiltzen zuten.

25. Lehenengo irratia, telebista, telefonoa...

- **Erref:** ARR-190/040
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:46:57. **Bukatu:** 00:49:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irrati bat zeukan aitonak. Lagunak etxera joaten ziren Londreseko BBC irratsaioa entzutera. Lehenengo telebista, senarra gaixorik egon zenean erosi zuten, Casius Clay boxealaria ikusi nahi zuelako. 28.000 pezeta balio zuen telebistak. Bizilagunen artean beraiek izan zuten lehenengo telebista eta jende asko joaten zitzaien etxera. Telefonorik ez zuten izan beranduarte.

26. Hildakoaren gorpua kanposantura nola eramaten zen

- **Erref:** ARR-190/041
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:49:34. **Bukatu:** 00:52:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Garai batean, hildakoen gorpuak ez ziren eliza barruan sartzen eta ez talita eramaten zituzten kaletik. Ume zela, herriko gizon baten gorpua bistan eraman zutela kontatzen du. Kanposaturako bidea nolakoa zen azaltzen du. Isilik igotzen ziren.

27. ETAk Arrasaten eraildako hiru guardia zibilak

- **Erref:** ARR-190/042
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:52:01. **Bukatu:** 00:55:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

<p>ETAk Arrasaten hiru guardia zibil hil zituenekoa kontatzen du.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com